

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2011ko urriaren 20ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1) Tonerrak / sakelakoak biltzeko zerbitzua eta publizitate kanpaina; 2) Pilak biltzeko zerbitzua eta publizitate kanpaina; 3) Etxe Berdeak; 4) Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa; 5) Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen berrikusketa; 6) MAPTAyP Saileko laguntzak; 7) Prentsa-oharrak; 8) Urriaren 6ko Batzar Nagusia; 9) Autoa partekatzeko zerbitzua udal webguneetan zabaltzea; 10) Mugikortasunerako Eskualde Plana; 11) EcoEuskadi 2020.
- **Arropa biltzeko zerbitzua:** Eskualde osoan zerbitzua batera kontratatzeko kostuen simulazioa aurkeztu da, eta hori udaletan aztertzea adostu da, erabakia hurrengo bileran hartzeko.
- **“Alkateen Ituna-EIEP”:** Ekintza-planen ostean proiektu honen inguruko erabakia hartzea adostu da.
- **Bulego berriaren komunikazio kanpaina:** Oniritzia eman zaio aurkeztutako planteamenduari.
- **2012 Kudeaketa Planaren zirriborroa:** Udalen ekarpenaren zati bateko berrikusketari oniritzia eman zaio, banaketa proportzionalaren ohiko irizpidea, biztanle kopuruaren araberakoa, aztertu eta egokitzeko. Hurrengo bileran proposamen zehatzagoa aztertuko da. “Hiriko Ortu Ekologikoak” ekintza gehitzea proposatu da.
- **Batzordearen akten publikotasuna:** Webgunean bileretako ondorio nagusien sintesia argitaratzea adostu da.
- **Ingurubidera bisita:** Urriaren 10era (osteguna) atzeratuko da, 12:30etan.
- **Etxebarriko Udalak sarira aurkeztutako hautagaitzari babesa.**
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Azaroaren 24an (osteguna), 09:00etatik 11:00etara.